

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

GURE NAHIA ELKARTASUNA

Ane Pirata eta Patakon
fisioterapeutarenera joan dira gaur.
Patakonek azken egunetan mina du
belaunean. Bertan ezagutu dute Alba.



elkarlanean

Urduri jartzen
ari naiz, Ane. Goazen
etxera, dagoeneko
ez daukat minik.

Patakon, egon lasai.
Medikuak gu laguntzeko
daude.


Egia da, baina
batzuetan ezin dígute
nahi adina lagundu.

Zer pasatzen
zaizu?


Mina daukat belaunean.
Nire ustez hazi-minak
dira.

Nola izango dira
hazi-minak?
Zu ez zara hazten ari,
Patakon!







Albak gaixotasun arraro bat dauka. Medikuak ez dakite oso ondo zer pasatzen zaion.



Jaio eta hilabete batzuetara konturatu ginen zerbait pasatzen zitzaioela. Hankak beti izoztuta zituen eta ezin zuten eserita jarri.



Medikutik medikura gabiltza geroztik. Ez dakite oso seguru zein gaixotasun duen.



Bitartean, mesede egiten dioten tratamenduak egiten saiatzen gara. Ez dute sendatzen, baina on egiten diote.



GURE NAHIA ELKARTASUNA ELKARTEA

Gure Nahia Elkartasuna Gipuzkoako gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko elkarte da. Haur horien eta beren familieren bizitza samurragoa egitea da elkartearen helburu nagusia.

Gaixotasun arraroen inguruko ikerketak murriztak dira finantziario eza dela eta. Elkartearen helburua gaixotasun horiei buruzko informazioa biltzea eta tratamendu egokiak topatzea da.



Babes ekonomiko eta emozionala ere ematen ditu elkarteak, familiei bide gogor horretan babesa emanez.

HARREMANAK
Zarategi ibilbidea 100 (Txara 1)
Telefonoa: 697275135
gurenahiaelkartasuna@gmail.com

Medikuek liburu potolo-potoloak dituzte. Baina liburu horietan ez dute topatzen niri zer pasatzen zaidan zehazki.

Ederra panorama. Ez badakite seguru zer pasatzen zaizun, ezin sendatu.

Gaixotasun arraroek hori daukate; informazio gutxi eta zalantza asko.

Patakon, ez izan egoskorra. Belauneko mina sendatzea nahi duzu ezta?

Albari ere mesede handia egiten dio fisioak, segi barrura.

Animo, Patakon. Hemendik ateratzean txokolatea hartzera joango gara...